

Nafarroa oinez 95

Aurtengo «Nafarroa Oinez» guz-
zien gañekoa izan da. Urriaren
15-ean mundu bat bildu zan
Tuteran eta erraten dutenez
100.000 lagun ibiliak dira Erri-
berako Hiri Nagusian. Tuterako
«ARGIA» Ikastolaren alde egin
diren ospakizun guziak ondorio
onak eman ditu eta bildu omen
da franko poliki Ikastolaren alde.

Orain Ikastola berria eraiki be-
har dute eskualde hortan eta za-
letasun aundiarekin lotu dira
erriberako euskaltzaleak lan mi-
resgarri hortara. Nafar Izkuntza
nafartar guzien egiazko mintzai-
ra, Erriberan ere piztu da gure
hizkuntzarenaganako maitasuna
eta aurrera goaz. Duela 10 urte
sortu zuten Tuteran Ikastola
bortz haur bakarrik zituela eta
orain badauzka 114 haur. Hor
ageri da euskarak aurrerapen
aundia egin duela. Euskara na-
fartar guziena da, berdin baztan-
dar batena nola Tuterako batena
ere. «Nafarroa Oinez» besta ai-
pagarri huntara etorri dira Nafa-
rroako Aintzindariak eta Alderdi
aunitzetako jaunak ere denak
Nafar Izkuntzari indarra eman
beharrez eta denak elkartasun
ederrean. Hala behar ere! Go-
raintziak Baztan aldetik Tuteran
aldeko erriberatar guzietan.

«Nafarroa Oinez» sortu zen
1981 garren urtean eta ager de-
zadan zein herrietan ospatu di-
ren Billera hoiek:

- 1981. Ikastola Iñigo Aritza. Al-
sasua.
- 1982. Ikastola Baztan. Elizon-
do.
- 1983. Ikastola Labiaga. Bera.
- 1984. Ikastolen alde. Iruña.
- 1985. Ikastola Lizarra. Lizarra.
- 1986. Ikastola Gartzes. Tafa-
lla.
- 1987. Ikastola Zangotza. Zan-
gotza.
- 1988. Ikastola Tantirumairu.
Lesaka.



- 1989. Ikastola Andra Mari.
Etxarri Aranaz.
- 1990. Ikastola Lizarra. Lizarra.
- 1991. Ikastola Paz de Zigan-
da. Billaba.
- 1992. Ikastola Erentzun. Bia-
na.
- 1993. Ikastola Iñigo Aritza.
Altsasu.
- 1994. Ikastola Labiaga. Bera.
- 1995. Ikastola Argia. Tuteran.

Hemen Lasarte bertsolariaren
bi bertso:
Ni euskalduna naiz ta
kontentu naiz oso,
berari laguntzeko
nago animoso;
eskeñiko dizkiot
zortzi amar bertso,
aur txikiak sieskan
lua bezin gozo.
Euskera da zerua
bezelakotsua,
andik lurrera egan
jetxi zan uxua;
aingerutxuak bezin
garbi ta goxua,
naigabez beterikan
bizi da gaixua.

M. Izeta

Indurain... ¿«Papo»?

Ez orixe!

Esanik utzi genun «papo» zer den. Esan bait genun,
umeek beren aurr-izkuntzan oso poliki «papo» esaten
dutena, ume ez direnek, era askoz zakarragoz «akabo»
esaten dutela.

«Akabo» Indurain? «Papo» gure Migel?

Ez! Iñondik ere; ez!

Indurain lengoa da: Mutil bikaña, gazte bizkorra,

gizon indartsua, lenen malleko txirindularia...
Bere eginkizunean berdiñik gabeko gizasemea. Bai-
ñan... giza-semea, gizonezkoa, gizon gazte bat, ezur eta
aragizko gizona; ez aingerua, naiz izena bai, Mikel,
goiaingeru baten izena izen.

Gizonezkook berriz, baita indartsuen direnak ere,
—gu bezalako ume makalok zer esanik ez—, ez gera
guztialdunak. Baditugu neurriak. Eta neurri oietatik pa-
satzen garanean, nekatu egiten gara, auldu, makaldu.

Mandoak ere ez ditezke neurritik gora zamatuz. Ederki
esan zun ori karlisten gudatekoan Pello Errota Asteasu-
'ko bertsolari trebeak. Pello'k Andoain'en inguruko ba-
soak ederki ezagutzen zitula-ta, ez dakit libera- lek edo
karlistek bost mandorekin mendi-gañean tiroka ari ziren
solda- duei balak eramatera beartu omen zuten.

Zamatu omen zitun, ederki zamatu ere, bost mando
aiek, eta abiatzera zijoanean, mando aietako bat beste
zerbaiteko bear zutela-ta, bost mandoen karga lurrera
jetxierazi, eta lau mandorekin karga ura dena eramateko
agindu omen zioten. Baita Pello'k ere laister erantzun:

«Lau mando ta bost karga? Bertan deskarga»

Ori gertatu zaku Migel'ekin ere. Geiegi zamatu dugu,
eta azkenean ezin izen du.

Nekatuta zegoan «Munduko Txapelketa»ko laisterke-
tan ere. Ala irabazi zun Abraan Olano gazteak balio
aundiko txapel ori. Garbi-garbi, irabazi zun. Bere mere-

zimendu utsez. Ori aitorzekoa da. Bañan aitorzekoa da
baitare, ez zula bearbada txapel ura jantziko, Migel ain
nekaturik aurkitu ez ba'lituz.

Gero, ez du Migel'ek atsegiñik izen. Ez ditu iztarrak
nekez zamatuz. Bai ordea bere erantzukizuna, ots, bere
erresposabilitatea. Denok espero genun «Orduko Pro-
ba» ere aterako zula. Denok ori espero genulako ori,
berak bazekin. Aski jende ugari joan zen emendik Ko-
lonbi'raño Migel'ek marka guztiak nola porrokatzen zun
ikustera. Ta, ori, berak bazekin. Mundu guztia zegoen,
telebistaz, Migel'eri begira, Miguel txalotzeko irrikatzen.
Eta, ori ere, berak bazekin.

Aizea, aipatu da. Aitzeki txarra: Zegoan aizea, ez zen
aize izetara ere iristen. Egunsentia zela?, otz egiten zula?
Ez dire aitzeki naioak.

Ori dena ikusten zun Migel'ek ere. Altagutziz, mar-
txan jarri zen. Neka-tuegia zegoala ez zen oartu. Edo,
Mundu guztia bere begira zeukela jakiteak eta bere
garaitza txalotzera ainbeste jende alako bidaldi luzea
egin zula gogoratzeak beartuta, jende guzti oiei utsik ez
egin nairik, martxan jartzera bearturik ikusi zun bere
burua.

Nik, irakurle, txirindularitzaz ez dut geiegi entendi-
zen. Baña baditut txirindulari onak izendako adiskideak.
Oietako batzuk baita nere ikasleak izenak ere. Eta aue-
ta-ko bat, Gazteitz'en ondoko Lasarte errikoa, ospe aundi-
koa izena. Nere adiskideak bazuten Migel larri ibilliko
ote zelako kezkatxo pittin bat.

Bañan ziur daude atsedean-aldi eder baten ondorean,
Migel betiko Migel izengo dela atzera berriz. Berea
izengo dula datorren urteko «Frantzi'- ren Inguruketa»;
eta, nai ba'du, baita «Orduko Laisterketan» orain arte
jarritako markak ere, ausi aal izengo ditula.

Orrela bedi.

Latiegi'tar Bixente

Erronkari'ko eguna Tuteran

Egitan, jai bat urtero sortu bear luke-
te Tuteran, Erronkari'kin dauzkan
lokarriak ospatzeko. Euskal kultura-
ren aldetik irabazi aundia ekarriko
luke orrelako jai batek.

Beti gogotik erraten dut eta ao
zabalik entzuten didate: 1119'ga-
rren urtean Alfonso I, Nafarroa'ko
errege borrokalaria, Tuteran eskuratu
edo menderatu zuen eta iri andi
onen karriketann, Erronkari'ko eus-
kara barra-barra entzungo zen; Eliz-
-nagusiko arrizko erromaniko Andre
Mari orrek otoitz anitz Erronkari'ko
euskaraz entzuten zuen. Nafar'ta-
rrak Tuteran bereganatzerakoan,
Erronkari'tarren laguntzarekin egin
zuten. Erronkari'tarrak iri inguruak
ongi ezagutzen zituzten; Erriberako
lur yoriak aberatsak izaki eta Ipar
aldeko artaldeentat bearezkoak.

Erronkari eta Tuteran arteko loka-
rriak aspaldikoa dire. Gizaldi ta gi-
zaldietan Erronkari'tarrak, artaldeak,
Udara- azkenetik Udara artio Erribe-
ran eukitzen zituzten. Maiz, manda-
tueta Tuteran joan bearra izaten
zuten. Goiko ta beko lurraldeen ar-
tean arreman andiak lortzen ziren.
Erronkari'tar mendiko artzai oiek
maite zituzten Erriberan.

Erronkari'ko euskaraz, «Tuteran»
deitzen zioten Erriberako Iri Nagu-
sari.

Gaur egun artaldeak anitz gutitu
dire Erronkari'n. Ala guztiz ere ba
daude ardiak oraindik eta negua
igarotzera Erribera aldera eramaten
dituzte.

Oitura zar ori ezagutzeko gogoan
nuan eta berriak jasotzeko Erronka-



ri'ra joan naiz aurtan. Urzainki'n ar-
kitu nituen artzai ta artaldeak.

Ara Juan Luis Nekotxea'k eman-
dako berriak. Ba dauzka, gaur orain-
dik seireun ardi. Len Urzainki'n,
orain dela berrogeitamar urte, ba
zeuden, bakarrik erri ortan, 26.000
ardi eta abere buru.

Len bezala gaur ere, naiz artzai ta
artalde gutiago izan, batzuek badi-
joazte negurako Erribera aldera. Or-
tarako, aspalditik asita ba dute bide
berexia, «Artalde oiada». Mendiz
Leire'ra jarraitzen du, gero Zangot-
za'ra dijoa, ta Zaragatzelu'tik Landa-
zuri'ra (Bardenas) iristen da. Gero
inguruko errietan, etxoletan geldit-
zen dire. Asieratik amaia arte zazpi
eguneko bidea dute.

Illabete luze oietan gauza anitz
gertatzen ziren; batzuek ezkontzen
eta bertzeak etxeren bat erosten,
baita lurrak ere.

Arreman eder oietatik etekiña ate-
ratzeko jai egun bat egin bear litzake
urtero Tuteran. Ortaz naioa min-
tzatu giñan Daniel Lopez Moreno
Erriberako euskaldun argiarekin.
Euskal dantzen maitasuna ta oitura
andia daukate Tuteran. Erronkari-
tarrak ere ba dituzte bertako jauzi
bereixiak, «Tun-tun» delakoa. Auke-
ra polita sortuko litzake ori dena
Tuteran azaltzen, jantzi egokiekin.
Beko aldekoak mendiruntz joan di-
tezen bazterrak ikustera, Erronkari-
'ko ikuspegi zoragarriekin erakuske-
ta eder bat antola dezateke. Orrelako
egunak Erronkari'ri indar andia
emango liokete. Baita biyori, Erron-
kari ta Tuteran, euskal gosea. Nafa-
rroa'ko saietsa (Erronkari) ta Nafa-
rroa'ko orpoa (Tuteran) maitasun
berdiñean lotuak geldituko lirake.
Ortik dijoa etorkizuna.

Latxaga

Berri ona

Errezatzen al dugu?

«Bi gizon igo ziren jauretxera otoitz egitera»
(Lk. 18, 9-14)

OTOITZ giroan jartzen gaitu gaurko ebanjelioak. Egun, otoitz egite-
ra nor joaten da elizara? Etxean egiten ote dugu otoitz? Dena-de-
la, Jesus-en garaian ere elizara, templora joaten ziren errezatzen.
Parabolako farisearra ez dugu iñoz ongi ikusi. Gizon txartzat artu izan
dugu beti. Ebanjelioak, ordea, ez digu erraten okerra zenik, gezurra zionik.
Egia da legea zuzen betetzen zuela, ez zela lapurra, asteen bi egunetan
barau egiten zuela eta abar. Guk ezin ukatu aren itzak.

Eta nork baieztatzen digu zergalari ura gizon ona eta zuzena zela?
Gauzak eta ekintzak azaletik epaitzeko oitura dugu eta orrek juzgu okerrak
egitera garamatza askotan.

Gure artean ere bada farisearraren modura jokatzeko duenik; noski,
badira, baita zergalariaren antzeko jarrera dutenak ere. Badira noizean
beinka elizara joan direnak eta egunero joaten direnak. Badira elizaren
sarrerako atea ondorean jartzen direnak eta badira Ebanjelioa irakurtzen ari
denean sartu eta aurreko aulkira joaten direnak. Badira zakura diru asko
botatzen dutenak eta badira apal eta umil Eukaristian Jaunaren Itza adi eta
erne entzuten eta Eukaristiaren maian parte artzen dutenak.

Nor gera, ordea, pertsona oien jarrera oiek epaitzeko? Gogoan izan bear
dugu Jainkoak ez duela ekintza onik kondenatzen. Ez da ere joera okerrak
onartzen. Ez al dira anitz gure ekintza onak arrokeri bihurtzen? Ori ere ez da
bidezkoa.

Egun bizi dugun estuasunak ez digu otoitza bear bezala egiten uzten.
Korrika eta presaka joan bear izaten dugu toki guztietara. Lanpetuta
bizitzeak gure gorputza nekatuta uzten du. Eta otoitzerako gure gorputza
lasai edukitzea derrigorrezkoa da.

Bestalde otoitz egiten ez dakigu. Ez digute erakutsi otoitz egiten. Betiko
otoitzak eta errezuak buruz erratea naioa dela pentsatuz bizi gera. Gure
esperientziatik Jaingoikoarengana urbiltzen ez dakigu. Ez zaigu bat bate-
ko otoitzik ateratzen. Errezenera jotzen dugu.

Otoitz egitea Jaungoikoarekin egotea da. Orregatik da zailla otoitz
egitea. Otoitz egitea Jainkoaren misterioa eta izatea gizaki bakoitzean
ikustea da.

Nola deitu elizara doanari farisearra? Baña badu gure otoitzak farisear
jarrerarik, tamalez. Guk egiten dugun bizitza bat ote dator egiten dugun
otoitzarekin?

Begira, otoitzak asko balio du eginkorra delako eta gu guztiok gizone-
makumeago egiten gaituelako. Orregatik bakarrik merezi du otoitz egitea.
Artzalluz'tar Joxemari

«Euskararen eguna» Malerrekan

«Langarra» Euskara Taldeak antola-
turik, «Euskararen Egua» ospatuko
da urriaren 29an, igandea, Sunbi-
llan,

Egun horretako egitaraua honako
hau izan da: 11etan, frontonean:
zaldia, pottokak... haurrendako.
12etan, artisauen feria eta erajuske-
ta. 14etan, Bazkaria «Uli Beltzak»
Elkartean. Bazkalondoa: bertsola-
riak eta trikitaliak. 16etan, «Uli Bel-
tzak» Elkartean «Kasketa Kabareta»

antzerki taldearen saioa. 19etan
frontonean: «karaoke» saioa.

Bertzalde, erran beharra dago,
Malerreka osoan ari dela lanean
«Langarra» Euskara Taldea, hau da:
Ezjura, Eratsun, Saldias, Beintza-
Labaien, Urrotz, Oitz, Donamaria,
Zubieta, Ituren, Elgorriaga, Do-
neztebe, Bertizarana eta Sunbi-
llan.

Iaz Donezteben antolatu zuten
«Euskararen Eguna», eta arrakasta

handia izan zuen. Asmoa dute, be-
raz, urtero aldatzeko herria.

Honako hau ez da, dena den,
euskararen normalizazioaren alde
urtean zehar egiten duten ekitaldi
bakarra, bai zera! Bertzeak bertze,
honako hauek egin dituzte auri-
en: «Kukumiku» lehiaketa escolako
haurrekin udako pelikula emanaldia.
Eguberrietako Kultur ziklos, euska-
raren erabilpena sustatzeko kanpai-
na...